



Andoaingo Udala

INAUTERIETAKO ARGAZKI LEHIAKETAREN OINARRIAK

1. Andoaingo Udaleko Kultura Batzordeak argazki lehiaketa deitzen du 2010. urteko Inauterietako kartel iragarlea eta programaren azala osatzeko.
2. Lehiaketa herri mailakoa da eta horretan parte hartu ahal izango dute argazkigintzako profesionalak ez diren 16 urtetik gorako pertsonak, Andoainen bizi, ikasi ala lan eginez gero.
3. Gaia Andoaingo Inauteriak izango da, eta edukiarri eta ideiarri dagokienez, lanek jatorrizkoak izan beharko dute eta jendaurrean erakusgai jartzeko moduan aurkeztuak.
4. Lanak paperean aurkeztu behar dira, gutxienez 20 x 15 cm-ko neurria behar dutelarik eta, gehienez, 30 x 40 cm-koa, euskarri gogor batean (kartoikian), eta negatiboekin edo jatorrizko artxibo digitalarekin batera aurkeztuko dira.
5. Partaide bakoitzak, gehienez ere, 4 aurkeztu ahal izango ditu, txuri-beltzean ala koloretan.
6. Lanak **BASTERO KULTURGUNEAN** aurkeztuko dira **2010eko otsailaren 22an**, goizeko 10:00etatik 13:00etara, eta lanekin batera gutunazal itxi bat aurkeztu behar da, eta horren barruan egilearen izen-deiturak, helbidea eta telefonoa; baita aukeraturiko lema azaltzen duen agiria ere. Gutunazalaren kanpoaldean zein argazkien atzealdean, lema baino ez da idatziko.
7. Epaimahaia Kultura Batzordeko kide batek eta bi artistek, kritikari edo profesionalek, osatuko dute, eta bere erabakia apelaezina izango da. Erabakia prentsaren bidez ezagutaraziko da, baita sariak banatzeko eguna eta ordua ere.
8. Epaimahaiaren iritziz ezaugarriarik egokienak dituen lanarentzat **300 euroko** sari bakarra ezarri da. Dena den, Epaimahaiaren iritziz, aurkeztutako lanen artean ez badago bakar bat ere saria jasotzeko adinako kalitate daukanik, lehiaketa hutsik utzi ahal izango du.
9. Sarituriko lana Andoaingo Udalaren jabetzakoa izatera igaroko da, eta Udalak horrekin nahi beste erreprodukzio egin ahal izango ditu, eta egoki deritzon publizitate lanetan erabili. Hori dela-eta, horren egileak ezin izango du erreklamaziorik egin, edo jadanik sariarekin jasotako diru kopuruaz bestelako dirurik jasotzeko eskubidea eskuratutzat iritzi.

Saritu gabeko argazkiak **martxoaren 1 eta 2an** jaso ahal izango dira.

10. Udalak ez du inolako erantzukizunik hartzen lehiaketara aurkeztutako lanek jasan ditzaketen kalteen gainean, eta bertan parte hartzeak oinarri hauek onartzea suposatzen du.

Andoain, 2010eko urtarrila.

KULTURA BATZORDEA



Andoaingo Udala

BASES DEL CONCURSO DE FOTOGRAFÍA DE CARNAVAL

1. La Comisión de Cultura del Ayuntamiento de Andoain convoca un Concurso de Fotografía para la confección del cartel anunciador y la portada del programa de los Carnavales 2010.
2. El Concurso es de ámbito local y podrán participar cuantas personas no profesionales en la materia lo deseen a partir de los 16 años, sean residentes ó estudien ó trabajen en Andoain.
3. El tema será los Carnavales en Andoain, habiendo de ser los trabajos originales en cuanto a idea y contenido, y en condiciones de ser expuestos al público.
4. Los trabajos habrán de presentarse en el formato de papel, en un tamaño mínimo de 20 x 15 cm. y un máximo de 30 x 40 cm., montados en soporte rígido (cartón), y habrán de ir acompañados de su negativo o de su archivo original digital.
5. Cada participante podrá presentar un número máximo de 4 trabajos en las modalidades de blanco y negro ó color.
6. Los trabajos se presentarán en BASTERO KULTURGUNEA el día **22 de febrero de 2010**, en horario de 10:00 a 13:00 h., acompañados de un sobre cerrado en cuyo interior figuren el nombre y apellido, dirección y teléfono del-de la autor-a, reflejándose en el exterior del sobre y reverso de las fotografías el lema del mismo.
7. El Jurado estará integrado por un miembro de la Comisión de Cultura y dos artistas, críticos o profesionales, siendo su fallo inapelable. Éste se dará a conocer mediante la prensa, así como el día y la hora de la entrega del premio.
8. Para el trabajo que, a juicio del Jurado, reúna las condiciones más destacadas, se establece un único premio de **300 euros**. No obstante, el Jurado queda facultado para declarar desierto el Concurso si, entre los trabajos presentados, no encontrase ninguno con la calidad suficiente para ser adjudicatario del mismo.
9. El trabajo premiado pasará a ser propiedad del Ayuntamiento de Andoain, y éste podrá efectuar del mismo cuantas reproducciones precise, y emplearlo en los trabajos de publicidad que estime convenientes, sin que el/la autor/a del mismo pueda efectuar reclamación alguna ni considerarse con derecho a percibir cantidad distinta al importe del Premio ya obtenido.

Las fotografías no premiadas podrán recogerse, **los días 1 y 2 de marzo**.

10. Este Ayuntamiento no se responsabiliza de los daños que pudieran sufrir los trabajos presentados a Concurso, suponiendo la participación del mismo la total aceptación de estas bases.

Andoain, enero de 2010

LA COMISIÓN DE CULTURA